


FUNTSEZKO JARDUERAK

Eskaini nahi dugun **orientazio akademikoko** zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, **funtsezko** hainbat **jarduera** eskainiko ditugu, gure **balio-proposamenari** forma ematen laguntzeko. Gure produktua gehien bat zerbitzua denez, batez ere **jardueren** bidez **asetuko** ditugu **bezeroak**, eta hortaz hauek ondo **garatzea** eta **antolatzea** ezinbestekoa da gure **enpresaren funtzionamendurako**. Funtsezko jarduera horiei esker, ikasleek, familiek eta ikastetxeek laguntza **erosoa**, **eguneratua** eta etapa bakoitzean dituzten beharretara **egokitua** jasoko dute; behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, badakigulako prozesu **gogorra** dela eta oso erbaki **garrantzitsu** eta **korapilatsua** izan ohi dela. Horregatik, ahalik eta **zerbitzu osoena** eskaini nahi dugu.

Aipatu bezala, **zerbitzu hurbila eta erosoa** ezarri nahi dugu, gure **helburua** gure **kideen** eta **bezeroen** artean **konfiantzazko harreman** bat egotea da, horrela lotsa edo oztoporik



gabe komunikatu ahal izateko eta hain **pertsonala** den erabaki batean ahalik eta hoberen **lagundu** ahal izateko, ikaslearen ikuspuntu osoa eta zintzoa ezagutu nahi dugu. Horretarako gure **ikasle bakoitzari tutore** bat egokituko zaio (gutako bat), horrela **bilerak** eta **tutoretzak** antolatuko ditugu astero eta apurka-apurka ikasleen **bidea argitzen lagunduko** dugu.

Lehenik eta behin, gure **lehenengo bileretan**, oraindik bezeroa pixka bat ere ez ezagutzen dugunean, pixkanaka-pixkanaka haiengana hurbiltzen hasteko **bokazio- eta lanbide-test orokorrak** eginaraziko dizkiegu. Horrela, kasu gehienetan behintzat, haien nondik norakoa ikusten hasiko gara. Argi dago ez dugula haien espelizazio zehatza jakingo zuzenean, baina haien **interes orokorrak** ezagutzen hasiko ditugu eta **gustoko ez dutena** ere **baztertu** ahal izango dugu eta oinarri horretatik jada lanean hasteko gai izango gara. Gainera, uste dugu testak funtsezko tresna direla **ikasleentzat ere** beren **burua** hobeto **ezagutzeko**, askotan era **inkontziente** batean benetan gustoko dutena aukeratzen dutelako, hori haien buruari aitortzeko oraindik gai izan ez badira arren.



Aldi berean, gure taldeak, gure **kideekin elkarlanean** (hainbat eremuetako profesionalak, jada unibertsitatean dauden ikasleak, lanbide ezberdinetako langileak...) **hezkuntza-edukia** sortuko eta kudeatuko du. Bideoak, hitzaldiak eta gida erabilgarriak ekoitziko ditugu.



Gainera, etengabe **eguneratuko** dugu graduei, unibertsitatei, bekei eta enplegarritasunari buruzko informazioa, gure **bezeroak informatuta** egoteko **lan-munduaren** eta **mundu akademikoaren egoeraz**. **Informazio** eta **material guzti** hori gure **aplikazioan argitaratuko** dugu eta horrela gure bezeroek beti izango dute eskura. Horrela, haiek urtero 365 egun eta egunero **24 ordu** izango

dituzte **eskuragarri** ikasten eta informatzen jarraitzeko **baliabideak** eta haien **bidea** **bilatzen** jarraitu ahal izango dute **beren kabuz**, gure zuzeneko laguntzarik gabe.

Horrez gain, gure balio-proposamenaren alderik **indartsuenetako** bat **profesional, langile eta ikasleen** arteko zuzeneko **harremanak erraztea** da, eta horretarako **hitzaldi eta tailer** ezberdinak **antolatuko** ditugu. Hauek, gure bezeroen **beharren** eta **interesen** arabera **moldatuko** dira; izan ere, gure ikasleen %40a espezializazio zehatz batean interesatuta badago, argi dago alderdi **horretan** jarriko dugula **esfortsu** eta **ahalegin** gehien eta ekitaldi handiagoak antolatu ahal izango ditugula. Hala ere, orokorki, adibidez irailean azoka handi bat antolatuko dugu eremu ia guztietako pertsonekin: ingeniaritza, ekonomia, medikuntza... eta horrela gure ikasleek aukera guztietan murgildu ahal izango dira, mugarik gabe, eta lehen eskutik ezagutuko dituzte lanbide desberdin guztiak. Horretik abiatuta, interesak finkatu ahala, ikasle bakoitzari egokituko diogu zerbitzua, gure **segmentazioa pertsonalizatua** izango da. **Zalantzak** edo ezinegonak argitzeko **aurrez aurreko** edo **online bilerak** antolatuko ditugu gure ikasleen eta jada lanean ari diren edo hori ikasten ari duten gazteen artean, haiek beste inork baino hobeto erantzun ahal izango baitute. Gainera, **gai** zehatz bati buruzko **interesa** dagoela ikusten badugu, **hitzaldiak** antolatuko ditugu **pertsona kopuru batentzako aditu** batekin, horrela gaiari buruz ikasi ahal izango dute, **galderak** egiteko aukera zuzena izanda, eta hori etorkizunean ikasi **nahi** izango duten jakingo dute gure bezeroek.



BEZEROAREN TXOSTENA	
INFORMAZIOA	
Izena eta abizenak	Jaiotza data/ adina
Email	Ikastetxea
Helburuak	Maila
PROZESUA	
Saioaren data	Obserbazioa
Saioaren data	Obserbazioa
Saioaren data	Obserbazioa
Saioaren data	Obserbazioa
Saioaren data	Obserbazioa
Saioaren data	Obserbazioa
BAZTERTUTAKOA	
BESTE DATU BATZUK	

Horrela, **jarduera desberdinak** landu ahala, denborarekin bezero bakoitzarentzako **txosten pertsonalizatuak** eraikitzen joango gara **ikaslearekin batera**. Adibidez, tailer ezberdinetan parte hartu ondoren gustatu zaiena edo desberdina zela uste zutena komentatuko dugu eta horrela **bidea argitzen** joango gara elkarrekin. Horrela, bai guk eta bai ikasleak berak ordura arte argitutako edo kontuan izandako guztia **era argi eta antolatu** batean ikusi ahal izango dugu. Gure **saioen bukaerako helburua** txosten hori **erabat betetzea** eta **zehaztea** izango da, orduan jakingo baitugu ziurtasunez **zein izango den gure bezeroaren bukaerako aukera** eta gure lana amaitutzat emango dugu, beti ere kontuan izanez **ondorengo jarraipena** ere egingo dugula behin ikasketak hasita aldaketarik edo berbideratzerik behar izatekotan ahalik eta lasterren detektatzearren eta konpondu ahal izateko.

Azkenik, ELKARTUZen **etengabeko hobekuntzaren** aldeko apustua egin dugu. Horretarako, **ikasleen aplikazio erabilera eta bilakaera** aztertuko ditugu eta **gogobetetasun-inkestak** ere bidaliko ditugu, eta horrek aukera emango digu **hobetzeko** aukerak **identifikatzeko** eta **erabiltzaileek** gehien **baloratzen** dituzten **arloak** indartzeko. Era berean, etengabe lan egiten dugu gure **plataformaren garapen teknologikoan** eta taldearen **barne-prestakuntzan**, gure tresnak, metodologiak eta edukiak hobetzeko. Pentsatzen dugulako gaur egungo gizartean ezinbestekoa dela ahalik eta aplikazio **onena** izatea eta behin eta berriz ikasten eta **edukiak birziklatzen** jarraitzea atzeratuta geratu ez gaitzen.

